El convenio se ha dado a conocer en el mojón de Jadar, en la confluencia de los municipios de Zumaia, Deba y Zestoa. Hasta el momento el mojón ha estado caído y la comparecencia se ha producido después de que volviera a ponerse en su sitio. En el marco del convenio, también se ha acordado poner en marcha dinámicas para su recuperación y conocimiento en el hito de la zona.

Las cuatro partes han mostrado su satisfacción por el convenio y, aunque se trata de un proyecto sencillo, esperan que dé resultados a corto y medio plazo.







Argazkia: Ander Salegi

**Se recuerda con la visita de un patache los lazos con la mar de Deba e Itziar, cuando se cumplen 500 años de la primera vuelta al mundo de Elkano**

# Garai bateko itsasoarekiko lotura gogoratu dugu Juanita Larando ontziaren bisitarekin

**Elkanoren lehen mundu biraren 500. urtemuga betetzen da aurten, eta hori gogoratzeko, Pasaiako Itsas Festibalean hasi (maiatzaren 26tik 29ra) eta Getarian egingo den Elkanoren lehorreratzearen bitartean (irailaren 6a) patatxa bat portuz portu dabil. Euskal itsas ondarearen kultur enbaxada izango da. Maiatzetik irailera, ontziak Euskal Herriko kostaldeko hainbat herri bisitatuko ditu, horien artean Deba eta Itziar. Uztailaren 4an iritsi zen Debako portura eta bertan harrera egin zioten hamarnaka herritarrek ekitaldi batekin. Uztailaren 8an hartu zuen Zumaiarako bidea.**

Egun horietan zehar hainbat kultur eta kirol ekimen egin dira, haur, gazte eta helduei zuzendutakoak; erakusketak, hitzaldiak, arraunketa irteerak...

Ontziari Juanita Larando izena jarri zaio XVII. mendeko emakume kortsario donostiarraren omenez eta Albaola Itsas Kultur Faktoriako ikasleek eraiki dute Orioko Mutiozabal ontziolan aurkitutako planoen arabera. Patatxa belarekin eta arraunean mugitu daiteke eta 18 lagunez osaturiko eskifaia du. Historiak kontatzen duenez, duela 500 urte, Juan Sebastian Elkano buru zuen Victoria itsasontzian, 18 itsas-gizon iritsi ziren Sevillara, Magallanesen espedizioan itsasoratu eta hiru urtera. 1519an abiatu zenean, helburua Mendebaldetik Ekialdeko Indietarako ibilbide bat aurkitzea zen, 5 ontzi eta 239 espedizio-kiderekin. Victoria itsasontzikoek 1522an lortu zuten planetako lehen mundu bira osatzea eta mugarri bezala hartzen da: gertaera horrek historia markatu zuen, eta 500 urte geroago oso presente dago.

Munduko nabigazioaren historian euskal ekarpenak aztertzeko eta ezagutza horretan sakontzeko baliatu da mendeurrena. Izan ere, mundu mailako gertakari horren dimentsio epikoak agerian uzten ditu ontzigintzaren ezagutza eta teknologia, itsasoko lanbideak, bizimoduak eta, azken batean, itsasoari lotutako herri baten kultura.



## Deba eta Mutriku arteko oinezkoen zubia berriz ere zabalik dago

Urtebete pasatxo behar izan du Moyua-Harri aldi baterako enpresa elkarteak 2018an amildu zen zubia birgaitzeko, eta maiatzaren 26tik dago berriz ere erabilgarri. Egindako birgaitze lanari esker, zubiaren jatorrizko egoera berreskuratzeaz gain, haren egonkortasuna bermatu da, eta, gainera, instalazioak eta akaberak hobetu dira, hala nola, argiztapen apaingarria eta galtzada-harrizko zoladura; horrela, zubia duindu egin da bere ondare-balioen mailaren arabera.

## Convenio entre Deba y Mutriku para el desarrollo del Estuario del Río Deba

22 lagunek hartu dute parte Emakumeak* surflari ekimenean; Debakoez gain, inguruko herrietakoak ere bai, adin tarte ezberdinetakoak. Ekimenaren helburua da ahalduntze indibidual eta kolektiboa bultzatzea. Partaideek azpimarratu dute "surfaren munduan lehenengo pausuak emateko oso ekimen gomendagarria dela, esperientzia ezin hobea izan dela, errepikatzeko modukoa!", eta begiraleen esanetan "oso talde onak izan dira, hondartza zoragarria da klaseak emateko, gainera, olatu ederrak izan ditugu; eta instalazio berriekin eta materialarekin oso ondo moldatu gara, baita bertako surflari eta eskolekin ere".



## Surfa emakumeak* ahalduntzeko bitarteko



Tras su aprobación en los plenos municipales, los alcalde de Deba y Mutriku, Gilen Garcia, y Joseba Palenzuela, respectivamente, han firmado el convenio para la redacción y tramitación del Plan Especial del Estuario, según se recoge en las Normas Subsidiarias Municipales de Deba y Mutriku. El objetivo de la redacción del Plan Especial es regular el desarrollo urbanístico de la zona desde la playa de Ondarbeltz hasta el puente sobre el río Deba y prever las actuaciones en la zona. El convenio recoge que ambos ayuntamientos constituirán una Comisión de Seguimiento para que la ejecución del convenio se lleve a cabo de forma satisfactoria.

## El albergue de peregrinos de Deba vuelve a estar abierto

Después de más de dos años de permanecer cerrado, el albergue de Deba GELTOKIA, procedió a su apertura el 25 de abril del 2022, con las limitaciones de la post-pandemia, reducción a la mitad del número de pernoctaciones, mantenimiento de distancias en el interior, etc. El primer peregrino en la reapertura fue un ciudadano francés atendido por la hospitalera Onintza Régil. Está gestionado por la Asociación de Amigos del Camino a Santiago de Deba, compuesta de personas de Deba que cumplen la función de hospitaleras y hospitaleros de forma voluntaria. Es un ejemplo de colaboración público-privada, puesto que la inversión inicial fue financiada mayoritariamente por el Ayuntamiento de Deba.

## Kanpoko desfibriladoreak erabiltzeko ikastaroak egin dira

2021 eta 2022 urteetan herrian hiru Kanpo Desfibriladore Automatiko berri jarri dira. Hala, aurretik zeudenei batuta, dagoeneko zazpi dauden Deban erabilgarri. Udaletxeko arkupetan, Hondartzako pasealekuan, portuan, Errotazarren, kiroldegian, Eroskin eta Gurutze Gorriko instalakuntzetan. Horrez gain, 32 pertsonei ere formakuntza eskaini die Udalak. Elkarteetako ordezkari, ostalariak... haiek baitira gailu hauek eskura izan ditzaketenak. Udazkenetik aurrera herritarrei begirako lanketa ere egingo da.



## Segurtasuna handituko duten porteria berriak jarri dira kiroldegian

Iraulketaren kontrako sistema homologatu berria duten porteriak jarri dira udal kiroldegian ekainaren hasieran. Poste obalatuak dituzte, istripuak ekiditeko. Gaur egun indarrean dagoen araudia betetzen dute, eta kiroldegiko erabiltzaile zein eskola-kiroleko parte-hartzaileen segurtasuna hobetuko dute. Tutigool enpresak jarri ditu, eta guztira 4.731 euro inbertitu dira. Bestelako hobekuntzak ere egin dira uztailean kiroldegian, goiko solairuko erabilera anitzerako aretoaren lurra aldatzea, kasu. Danetik aroztegiak egin du 29.875 euroko aurrekontua izan duen lan hori.

## LGTBIQ+ harrotasuna gaztetxoekin lantzea izan da lehentasuna haren nazioarteko egunean

Askotariko ekimenak egin dira Ekainaren 28a, LGTBIQ+ harrotasunaren nazioarteko eguna da. Erakunde adierazpena egiteaz harago, aurten lanketa bereziki gaztetxoekin egin da. Pertsonen arteko berdintasuna, aniztasuna... oinarrizko balore dituzten haur eta gazteek etorkizuneko Deba hobea egingo baitute. Ekimena Kolore Anitz aisialdi taldeko begiraleekin egin zen, ekimen ludikoen bitartez.





## Irailaren 23ra arteko epean eska daitezke alokairurako diru-laguntzak

Debako udalerrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko programaren laguntzen oinarri arautzaileak Debako Udaleko Osoko Bilkuran onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, uztailaren 15etik irailaren 23ra bitarte eska daitezke laguntzak 2022. urtean. Oinarriak eta eskaera-orriak www.deba.eus webgunean daude. Eskaerak Udaletxeko harreran edota erregistro elektronikoan aurkeztu behar dira.

## 'Ohiko lekuak' erakusketa izan da artista berrien lanak ezagutarazteko ekimenaren emaitza



Euskal artista garaikide berrien lanak ezagutarazteko asmoz, Debako Udalak Arte eskola bizirik taldearekin elkarlanean gazteen arte bisual lehiaketa aurkeztu zuten apirilean, eta irabazleen lana uztailaren 2tik 31ra bitartean egon da ikusgai Santa Maria elizako kalostran. Sara Berasaluce eta Yone Estivariz artistak izan dira irabazleak. Haien lanak biltzen dituen 'Ohiko lekuak' erakusketak bi begirada, bi leku eta bi memoria lotzen ditu argazki-proiektuan, espazioarekin eta bertan bizi diren izakiekin sortzen diren harreman intimoen bidez.

## Eskolako Agenda 30eko udalbatzarra maiatzean egin da

Urtero egiten den Eskola Agenda 30eko udalbatzarra egin dute aurten ere ikasleek, maiatzaren 27an. Aurtengoa, pasa den urtetakoa ez bezala, presentziala izan da. Udalak, ikasleen eskaerei eta proposamenei erantzun die. Aurtengo ikasturtean Lehorreko Bizitza gaia landu dute ikasleek Eskolako Agenda 30 programan. Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du eta ikastetxeak Debako Udalaren, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen, Ingurugelaren eta Debegesa Garapen Agentziaren laguntza du. Urtean zehar lehorreko bizitzaren gaia lantzeko hainbat ekintza egin dituzte ikastetxean. Behin egoeraren diagnostikoa eginda, ikasleek Udalbatzarrean aurkeztu dituzte ateratako ondorioak, baita euren eskaera eta proposamenak ere, hiri jasangarri bat eraikitze aldera. Halaber, aurten ikasleek hainbat konpromiso hartu dituzte.



# AGENDA

## ABUZTUA

**Abuztuak 4, osteguna. 20:00.** Udako musikaldia ORGANO KONTZERTUA Santa Maria elizan.

**Abuztuak 6, larunbata. 09:00-13:00.** Merkatu txikia estalitako pasealekua.

**Abuztuak 6, larunbata. 18:00.** Pala txapelketa Aldats pilotalekuan.

**Abuztuak 6-10.** KOPRAIXAK Itziarren.

**Abuztuak 11, osteguna. 20:00.** Udako musikaldia SOPRANOA ETA PIANOA Santa Maria elizako kalostran.

**Abuztuak 12, ostirala. 18:00.** Pala txapelketa Aldats pilotalekuan.

**Abuztuak 13, larunbata.** DEBA-REUS topaketa.

**Abuztuak 14-18.** SAN ROKE jaiak.

**Abuztuak 15, astelehena.** 10:00-15:00. ARTISAU AZOKA Estalitako pasealekuan eta Gudarien plazan.

**Abuztuak 25, osteguna. 20:00.** Udako musikaldia SOINU kontzertua Santa Maria elizako kalostran.

## IRAILA

**Irailak 3, larunbata. 09:00-13:00.** Merkatu txikia estalitako pasealekuan.

**Irailak 3, larunbata.** FEDERARTE jaialdia.

**Irailak 6-10 .** ANIMADEBA nazioarteko animazio zinemaldia.

**Irailak 10, larunbata.** KALE MARGO lehiaketa.

**Irailak 24, larunbata.** EUSKAL JAIA.



# Euskal Kostaldeko Geoparkeak ebaluazio misioa jaso du UNESCOren Munduko Geoparke izendapena berresteko

**2018. urtean bigarren errebalida prozesua "txartel berdearekin" gainditu ostean, Euskal Kostaldeko Geoparkeak Geoparkeen Munduko Sareko bi ebaluatzaileren bisita jaso du UNESCOren Munduko Geoparke izendapenari beste lau urtez eutsiko dion erabakitzeko. Ekainaren 14tik 17ra egon dira Deba, Mutriku eta Zumaian eta Geoparkearen kudeaketa eta esparru ezberdinetan egin diren aurrerapausoak aztertu dituzte, dibulgazioan, ikerketa zientifikoan, kontserbazioan eta natura turismoan, hain zuzen ere.**

Ebaluatzaileak Alemania-Poloniako Muskau Arc UNESCO Global Geoparketik eta Italiako Pollino UNESCO Global Geoparketik etorri dira, biak UNESCOren ordezkaritzan. Bisitaren helburua da Geoparkearen azken lau urteotako kudeaketa eta eman diren aurrerapausoen azterketa sakona egitea UNESCOren Munduko Geoparke izateko baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko.

Lau egunez ebaluatzaileak erakundeetako ordezkariekin, teknikariekin eta zonaldeko eragile ezberdinekin elkartu dira eta Geoparkeko interesgune nagusiak bisita dituzte, besteak beste, Deba, Mutriku eta Zumaiako herriak, Geoparkeko begiratokiak, Lastur eta Olatz, Geopark Corner-a, Nautilus museoa edota Algorri Interpretazio Zentroa.

Euskal Kostaldeko Geoparkea 2010az geroztik UNESCOren Munduko eta Europako Geoparkeen Sareko kidea da. UNESCOren Munduko Geoparkeek izendapen hau lau urterako eskuratzen dute eta, epe hau igarota, berriro aztertzen da Geoparkearen funtzionamendua eta kalitatea, errebalida prozesu zorrotz baten bitartez. Azterketaren emaitza uda ostean emango dute ezagutzera. Hala ere, Geoparkeko kudeatzailea den Leire Barriusok nabarmendu du ebaluatzaileak oso pozik egon direla eta "nahiz eta Batzordean hartu behar den erabakia, ordezkarien erantzuna positiboa izan da eta horrek lasaitasuna ematen du, gauzak ondo egin diren seinale". Dena den, "Geoparkeak uda ostean izango du erantzun ofiziala eta emango dizuegu horren berri" gehitu du Barriusok.



Egungo munduan bizi ditugun krisi larriek ingurumenaren orekaren garrantziaz jabetuarazi gaituzte azken urteotan. Horren adierazle dira aldaketa klimatikoaren arazoak hartu duen lehentasuna, edota bioaniztasuna babesteko ahaleginak. Ezinbestekoa da ingurumena babesteko neurriak hartzea, bestalde paisaia naturala errekuperatzeak ustiaketa politika aldatzea dakar, pixkanaka herri-lurrak eskuratu eta zaintzan jarriz. Bi eginkizun hauek kontuan hartuta ekin dio Itziarko Auzo Udalak Aixako zuloko egitasmoari.



ITZIARKO AUZO UDALA

# Aixako zuloaren ingurua babesteko egitasmoa



Itziarko Auzo Udalak bere sorreratik agertu nahi izan du ingurumenarekiko begirunea eta paisaia naturala babesteko ardura. Bertako lursail eta baso ia guztiak jabetza pribatukoak izanik, nekez ezarri daitezke ordea bestelako politikak, ustiaketa moduen norabide aldaketarik ezean. Horrela, inguruko beste zenbait herritan hasitako ekimenen ildotik, pixkanaka lurrak erosiz publiko bihurtzeko bidea abiatzea abiatu dugu.

Herri-lurrak gureganatzeko ekimenean, Aixako zuloaren eremuan kokatutako sailak dira lehenengoak. Oraingoz hiru hektarea erosi dizkie auzo udalak lur-jabeei. Inguru horrek duen balio naturalistiko eta geologikoa aintzat hartzea eta dagokion garrantzia ematea izan dira irizpideak. Lursailak erosi eta eremua babesteko proiektua garatzeko Aldundiko Ekonomia, Garapen ete Jasangarritasun sailaren 25.000 euroko dirulaguntza jaso du Itziarko Auzo Udalak.

“Aixako zuloa” Zabaleta gaina eta Arbil tontorraren arteko sakonune edo dolinan dago kokatuta, Itziarko herrigunetik 3 bat kilometrora. Izarraitz mendigune karstikoaren parte da eta, Gipuzkoako haitzulorik zabalenetakoa da, barrunbean 15 km pasa duten galeriak ezagutzen baitira. Herritar askorentzat arrotz izan arren, leize hau oso ezaguna da espeleologoen munduan eta bat baino gehiago dira Aixarako bidaiak eskaintzen dituzten enpresa, abentura irteera moduan aurkeztuz. Jende asko ibiltzen da leize honetan urtean zehar, edozein urtarotan.

Formakuntza geologiko berezia izateaz gain, Aixako zuloa hainbat saguzar espezieren bizileku ere bada, eta lehentasunezko babeslekuen zerrendan izendatuta dago. Duen arazo nagusienetako bat, gizakien perturbazioz gain, hain zabala den dolinako landarediaren egoera da. Helburu nagusia Aixa leizeko saguzar espezieen kontserbazio-egoera hobetzea da.

Lehenik sarreraren garbiketa egingo da, ahoaren inguruak txukunduz. Lan hauek amaitutakoan, aireko bideak markatu eta garbituko dira, saguzarrek bide libreak izan ditzaten beraien joan-etorrietarako. Haitzulora sartzen diren pertsonen kopurua ezagutzeko, kontagailu bat jarriko da. Saguzarrei dagokionean ere kontaketak egingo dira, haitzuloaren erabilera aztertzeko. Bestetik, ekintzak egingo dira egitasmoa herritarren artean zabaltzeko.

ehbildu

## EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Udal bateko dinamika inertziaz elikatzen da askotan. Aldaketarako asmorik ez denean, dagoen jardunari jarraipena ematea nahikoa da, beti horrela egin denaren aitzakian. Ez dugu ezer berririk asmatu, baina zaharkituta zegoen dinamikaren inertzia eten nahi izan dugu.

Lehentasuna eman diogu udal egitura eguneratzeari, herritarren partaidetza erdigunean jartzeari, aurretik zetozen proiektuak amaitzeari, oro har, ondo egiteari. Prozedura administratiboak, tamalez, konplexuak eta luzeak dira; baina marko tekniko eta legal baten baitan lan egitea dagokigu, batez ere, zuhurtziaz eta arduraz.

Partaidetza eredua, adibidez, gertuagotik begiratu beharreko kontua da. Herritarrak hezi, euren ezagutza sakontzeko aukerak sortu, ekarpenak eta kezkak jaso, ... Udalak aukera horiek guztiak ezarri behar ditu. Hain zuzen, eredu honen baitan, partaidetza kultura berri bat errotzea da asmoa. Herritarrak erdigunean jarriko dituena, alderdikeriak alde batera utziz.

Zumardiko proiektua lantzen jarraitzeaz gain, aurreikusita dugu Hiri Antolamendu Plan Orokorra eguneratzea, etxebizitzaren gaia lantzea, kulturgunearen beharra nola asetu aztertzea, ... herritarrekin, herriaretzat. Egiteko moduak eta moduak daudelako.

El motor de la dinámica de un ayuntamiento es muchas veces la inercia. Cuando no hay intención de cambio, basta con dar continuidad a la actuación existente.

Hemos priorizado la actualización de la estructura municipal, poner en el centro la participación ciudadana, culminar los proyectos ya iniciados, en general, el buen hacer.

El modelo de participación, por ejemplo, es una cuestión que hay que mirar más de cerca. Educar a la ciudadanía, crear oportunidades para profundizar en su conocimiento, recoger aportaciones e inquietudes, el Ayuntamiento debe establecer todas esas posibilidades. Precisamente, dentro de este modelo, la idea es arraigar una nueva cultura de participación. Que ponga a los ciudadanos en el centro, dejando de lado los partidismos.

Además de seguir trabajando en el proyecto de la Alameda, tenemos previsto actualizar el Plan General de Ordenación Urbana, trabajar el tema de la vivienda, analizar cómo satisfacer la necesidad de un espacio cultural, con y para el pueblo. Porque hay maneras y maneras de hacer.

Debarren Ahotsa

## ETORKIZUNEKO PROIEKTURIK EZ!

EH Bilduren legegintzaldiko 3 urte igaro ondoren, etxebizitza tasatuetan izena emateko behin betiko oinarriak argitaratu dira. Etorkizunari begira, etxebizitza eta aparkalekuen gaiak lehentasunezkoak dira, eta hala adierazi dugu behin eta berriz. Debarren Ahotsaren ustez, Elizburuko 38 etxebizitzek ez dute egungo arazoa konponduko.

Nekatuta gaude! Gai hauen inguruan hainbat proposamen egin arren, EH Bilduk ez dio merezi duen arreta eskaintzen: ez 2022 urterako hartutako 33 konpromezuetan, ezta hirigintza batzordea eta batzorde mistoa (aurten sortua) biltzeko beharrezkoa duten maiztasunean.

EH Bilduren Udal gobernu talde honi bi jarduera-ildo horiei epe labur eta ertainean irtenbideak emateko ordua iritsi zaio.

Deban bizi nahi duten pertsonek eta bertan bizi izatea lortu dezaten, Debarren Ahotsak bere programarekin jarraituko du, betiere eztabaidaren beharra azpimarratuz.

Zumardiaren proiketuak sortu duen polemikari dagokionez, argi utzi nahi dugu gure udalerria nabarmen hobetuko duen proiektu bat lortzeko lan egingo dugula, baldin eta behar den gardentasunez eta guztion arteko adostasunez egiten bada.

## ¡SIN PROYECTOS DE FUTURO!

Después de 3 años de la legislatura actual, gobernada por EH Bildu, se han publicado las bases definitivas para la elaboración de las listas de las viviendas tasadas.

Desde Debarren Ahotsa consideramos que tanto el tema de la vivienda, como los aparcamientos, son dos temas prioritarios para el futuro de nuestro pueblo y así lo hecho saber en reiteradas ocasiones, dado que las 38 viviendas de Elizburu no van a solucionar el problema.

Estamos cansados de hacer propuestas en este sentido, ya que venimos observando que EH Bildu no le presta la atención que merece como queda recogido en sus 33 compromisos para el 2022; prueba de ello es que la comisión de urbanismo y la mixta (creada este año), no se reúnen con la periodicidad necesaria.

Es hora de que el equipo de gobierno municipal de EH Bildu tome la iniciativa con el objeto de conseguir a corto y medio plazo soluciones a estas dos líneas de actuación.

Debarren Ahotsa continuará con su programa, incidiendo en la necesidad de debatir y conseguir que las personas que quieran vivir en Deba puedan hacerlo.

En cuanto a la polémica surgida por el proyecto de la alameda, queremos dejar claro que trabajaremos en conseguir un proyecto que mejore sustancialmente nuestro municipio, pero siempre que se realice con la debida transparencia y consenso entre todos y todas.

«OSIO GELDIRIK IZANDA, DEBAK EZ DU ETXEBIZITZA ETORKIZUNIK»

Debak duen etxebizitza arazoarekin kezkatuta azaldu da EAJ-PNV alderdia. EH Bilduren Udal gobernu taldeak geldirik dauka Osioko eremuaren garapena legegintzaldia hasi zenetik, eta herriak duen etxebizitza arazoak bere horretan jarraitzen du, irtenbiderik gabe. Alderdi jeltzaleak badaki hau urteetako prozesua izango dela, eta hortik pausuak lehenbailehen eman beharraren arrazoia: «azken urteetan pausurik eman ez izanak esan nahi du Debak ez duela etxebizitza etorkizunik epe ertainera».

Alderdi Jeltzaleak gogorarazi du aurreko legealdian hainbat moldaketa egin zirela Osion egin beharreko lanak zehazten ziren fitxa urbanistikoan: «Aurreko legealdian, EAJ-PNV Udal gobernuko kide zela Babes Ofizialeko etxebizitzei lehentasuna ematea erabaki zen eta baimen guztiak bideratu ziren gauzatu ahal izateko. Legealdia amaitu zenean azken baimen bat falta zen proiektua garatzen hasi ahal izateko, eta baiezko hori EH Bildu gobernuan zela iritsi zen. Hau da, EH Bilduren gobernu taldeak Osio garatzen hasi ahal izateko baimen guztiak ditu gaur egun, baina hala ere ez dute ezer egin». EAJ-PNVk gogoratu du betidanik egin duela lan proiektu honen alde eta debarren etxebizitza eskubideak lehentasuna duela alderdi jeltzalearentzat».

«CON OSIO PARADO, DEBA NO TIENE FUTURO DE VIVIENDA»

EAJ-PNV muestra su preocupación por la problemática de la vivienda en Deba. El equipo de gobierno municipal de EH Bildu mantiene paralizado el desarrollo de la zona de Osio desde el inicio de la legislatura y el problema de vivienda que padece la localidad continua sin solución. La formación jeltzale sabe que este será un proceso de años y de ahí la necesidad de dar pasos cuanto antes: «El hecho de que no se hayan dado pasos en los últimos años significa que Deba no tiene futuro de vivienda a medio plazo».

El Partido Nacionalista recuerda que en la pasada legislatura se realizaron una serie de modificaciones en la ficha urbanística en la que se detallaban los trabajos a realizar en Osio: «Se decidió dar prioridad a las viviendas de VPO y se tramitaron todas las autorizaciones para su ejecución. Cuando terminó la legislatura faltaba una última autorización y llegó con EH Bildu en el gobierno. Es decir, el equipo de gobierno de EH Bildu tiene hoy en día todos los permisos para poder empezar a desarrollar Osio, pero, aun así, no ha hecho nada». EAJ-PNV explica que siempre ha trabajado por este proyecto: «El derecho a la vivienda de Deba es prioritario para EAJ-PNV».



## UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

### GILEN GARCIA BOYRA
ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

### ITZIAR IRIZAR BERISTAIN
ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

### ARITZ LARRAÑAGA UNANUE
ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIAK)

aritzlarranaga@deba.eus

### ANTXON ETXEBERRIA LARREA
HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

### NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA
EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA, MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereaarrizabalaga@deba.eus

### ANTXOKA ELORZA ALTUNA
OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

*Portu kalea, 1*
*+34 943 192 840*
*info@deba.eus*

DEBAKO UDALA

Debako Udala @DebakoUdala Debako Udala



"Hoy en día el teatro vasco goza de muy buena salud, pero los grupos amateurs tenemos poco espacio"

**Irati Baroja**
**Goaz Antzerki Taldeko kidea**

# "Antzerkia arnasgune bat da gure egunerokoan"

Debako gazte elkartean du jatorria Goaz Antzerki Taldeak, 1973n. Urtebete beranduago, 1974an, eratu zen taldea Goaz izenarekin. Ordutik, pertsona askok egindako lana eman diote herriari. Biziberritze prozesuan dago une honetan Irati Baroja kideak kontatu digunez.

**Urte batzuk baditu Goaz Antzerki Taldeak. Zein egoeratan dago?**
Isilpean egon ondoren, esango nuke, lehenik eta behin, berpizten ari garela. Bestalde, jende berriari zein proiektu eta ideia berriei espazioa uzten ari zaion une batean dagoela Goaz.

**Zenbatek osatzen duzue eta nola antolatzen zarete?**
Gaur egun 6-7 pertsonak osatzen dugu taldea. Taldeak dituen beharrei arabera biltzen gara. Urtean zehar konstantzia batekin geratzen gara, eta esfortzu handiagoa eskatzen duten uneetan, Antzerki Astea prestatzeko bezalako momentuetan, denbora gehiago dedikatzen diogu taldeari.

**Antzerki Astea errotuta dagoen ekimena da.**
Antzerki Asteak 35 urte bete ditu aurten. Urte asko dira, bere berezitasunak dira, batetik, herritik sortzen den eta herriko talde batek sortzen duen ekimen bat dela, eta euskara hutsean. Aurten bereziki antzerki talde amateurrei eman nahi izan diegu espazioa, gu ere hala garelako, eta ulertzen dugulako gaur egun euskal antzerkigintza oso indartsu dagoela, baina une honetan amateurrok espazio oso txikia daukagula, eta egiten dugun hori beste herrietara zabaltzeko zailtasunak ditugula. Antzerkigintza profesionalizatu egin dela, eta hori oso positibo baloratzen dugu, baina alde negatiboak ere baditu.

**Fokupean ere egin duzue.**
Bai, Fokupean iaz egin genuen, Udalak atera zuen diru-laguntza batera aurkeztu ginelako. Egin nahi izan genuena izan zen antzerkigintza genero perspektibatik landu, bai emakume aktoreei oholtzan espazioa emanez, baina baita ere ideia, gidoia, eta hausnarketak feminismotik egiten dutenei: gorputza, zaintza, zahartzaroa, amatasunaren beste ikuspegi bat. Erantzun ona izan duen eta espero dugu bigarren festibala egin ahal izatea. Ikusi genuen Antzerki Astea eta Fokupean urtero egitea lan handia dela, baina saiatuko gara.

**Jende gaztea ere bazabiltzate.**
Hala da. Jende gaztea eta berria, esango nuke. Antzerki ikastaroetatik irteten joan garen pertsonak gara. Gugan dago Goazek izango duen etorkizunaren giltza.

**Zer ematen dizu antzerkiak?**
Arte erakusketa bat izateaz aparte, esango nuke antzerkia badela arnasgune bat gure egunerokoan. Horrekin esan nahi dut talde polit bat daukagula, elkar entzuten dugula, ideia berriak dauzkagula, batak bestearengandik ikasten dugula, eta gure eguneroko kaosetik ateratzeko proposamen ezberdinak egiteko leku bat dela.